

Zarata eta aire kutsadura gabe zaintzen badugu gure ingurua, biriketan eta buru gainean **zerua!**

Lainoen atzean ezkutatuta dagoenean ere bitamina ematen digu **eguzkiak**. Edan dezagun bere zukua kontuz eta erre gabe!

Ez eman **amore**, izan adorea eta umorea, eman maitasuna eta amore!

Bila dezagun oreka, **urak** bere bidea aurkitzen duen bezala; bakoitzak berea eta elkarren artean guztiona.

**Bihotza, musua eta masailak** piztuta, ekin lanari pozik eta eskuzabalik!

Zelai bat bezain **berde** eta loretsu mantendu norbere burua. Zurea, nirea eta ondokoarena; a ze lorategia mundua!

Eguzki-lorea bezala zabaltzen bada **ama-lurra** eta elikatzen badizkigu sabela eta bihotzak; ahaztu lotsa eta izan zabalik bihotza!

